

GOBERNU BATZARRA

2014. 06. 06

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko ekainaren seian, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Ibai Iriarte San Vicente	
Zinegotziak:	
Lore Agirre Zipitria	
Hasier de los Rios Soraluce.	1.- Aurreko akta onartzea.
Iñaki Xabier Irazabalbeitia	2.- Nazioarteko dirulaguntzen oinarrien proposamena.
Fernandez.	3.- Gizarteratzeko zerbitzua kontratatzeko baldintzak.
Idazkaria:	4.- Udalaren Telefono Mugikorren erabilera.
Jose Luis Unanue Ugalde	5.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	6.- Sanjoanak 2014. Egitaraua eta aurrekontua.
Paulino Alonso Eraso.	7.- Etxez Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.
	8.- Tolomendiren ekarpena eta hitzarmena.
	9.- Arramele Siglo XXI-ren eskaera. Ondasun Higiezinaren ordainketa zatikatzea. Rondilla 35W-ko garajeak.
	10.- Arramele Siglo XXI-ren eskaera. Ondasun Higiezinaren ordainketa zatikatzea. San Joan 2-ko garajeak (-1 solairua).
	11.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria.
	12.- Hondakinen bilketa tasa.
	13.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua.
	14.- Propuesta de resolución del contrato de

obras de la rotonda en la conexión de los ramales del enlace Norte de Tolosa en la N-1.

15.- 16/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko maiatzaren 30ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Nazioarteko dirulaguntzen oinarrien proposamena.

Nazioarteko elkarlanari dagozkien dirulaguntzak arautzen dituen oinarriak bi urtez behin argitaratzen ditu Tolosako Udalak eta aurten atera behar dira. Era berean horretarako oinarrien eta aurrekontuaren proposamenak aurkeztu dira Gizarte Politikak eta Osasuna batzordean.

Beraz, Gizarte Politikak eta Osasuna batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Nazioarteko dirulaguntzak arautuko dituen oinarrien proposamena onartzea.

BIGARRENA.- Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunari.

3.- Gizarteratzeko zerbitzua kontratatzeko baldintzak.

Gaia erabaki gabe geratu da.

4.- Udalaren Telefono Mugikorren erabilera.

Informatika zerbitzuak aurkeztu du Udalaren Telefono mugikorren portaera- kodea. Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ER ABAKI DU

LEHENA- Onartzea Tolosako Udalaren telefono mugikorren portaera-kodea. Hitzez hitz honela dio:

“Udal zerbitzuetako langileek udalak emandako telefono mugikorrek erabiltzen dituzte beren lanean. Telefono horien erabileraren kostua ere udalaren gain dago.

Hori dena, jakina, zerbitzuaren onerako da zeren udaleko zuzendaritza-organoak edozein momentutan egon ahal izango baitira kontaktuan langilearekin, behar den guztietarako.

Beraz, langile publiko batzuen kasuan, telefono mugikorraren erabilera ematen den zerbitzuaren onerako izanagatik, telefonoen gehiegizko erabilerak kaltea ekar liezaioke udalaren diru-kutxari. Hori gertatzen da Udalak emandako telefono mugikorrek erabiltzen badira dei pribatuak egiteko edo enkargatutako zerbitzu publikoarekin zerikusirik ez duten beste bitartekoekiko loturak egiteko; eta hori gerta liteke bai lanaldiaren barruan bai lanalditik kanpo, baldin eta langileak, inolako kontrolik gabe, berekin badarama telefono mugikorra bere etxera.

Hori dela eta, egokitzat jo dugu udal telefono mugikorren erabilera arautzea, bai langilearentzako berme gisa bai gardentasun handiago izateko udal ondasunen erabileran.

Horretarako, gaur egun, hau da, internetaren garaian, purian dagoen modu bat erabiliko da. Alegia, zenbait enpresek interneten erabilerarako bezala, portaera-kode bat roposatzen dugu telefono mugikorren erabileran. Kode horren asmoa Tolosako udaleko langileentako portaera-arau batzuk islatzea besterik ez da.

PORTAERA-KODEA

1.art. Aplikazio-eremua.

Udal korporazioak emandako telefonoen bidez lan egiten duten langile, udal merkataritza-enpresa eta udalaren mendeko erakunde autonomo guztiei izango zaie aplikagarri.

2.art. Erabilera eta izaera pertsonaleko datuak.

Utzitako telefona lan-tresna bat da eta, horregatik, enkargatutako zerbitzu publikorako beste ezertarako ez da erabiliko, guztiz debekatuta dagoelarik dei partikularrak egitea tresna horren bitartez.

Nola ez baita erabiliko erabilera pertsonaletarako, ez da eskubiderik egongo hura erabiltzeko intimitaterako errespetua edo komunikazioen sekretua behar duten egoeretan.

Hitzarmen hau sinatuta baimena ematen da, espresuki, erabilerak zuzenak diren ala ez egiaztatzeko behar den kontrola egiteko. Baimena ematen da, era berean, telefonoaren erabilera zuzena bermatzeko behar diren neurriak, halakorik behar bada, hartzeko, alde batera utzi gabe izaera prebentiboko beste neurri batzuk har litezkeela, esate baterako, zenbait konexio kanpoan uztea.

3.art. Ardura berezia.

Ardura berezia edo horrelako zerbait dela-eta soldataren osagarriren bat daukan langileak berekin eraman ahal izango du telefono mugikorra lanalditik kanpo, haren nagusiek kontaktuan egon ahal daitezzen berarekin noiznahi eta, horrela, eska ahal diezaioten, halabehar denean, nahi den zerbitzua.

Hala eta guztiz ere, inola ere ez da baimenduko utzitako telefonoarekin inongo dei pribatuak egitea.

4.art Murrizketak.

Telefoniaren administratzaileen irizpidearen arabera, udal telefono mugikorren lineetatik edozein murriztu liteke, erabakitzen diren dei profesionalak bakarrik egin daitezten.

5. art Terminalaren balioa.

Zerbitzuaren enkargatu arduradunak erabiltzaile bakoitzari terminal jakin baten adjudikazioa proposatuko dio, erabiltzaile bakoitzarentzat kontratatutako zerbitzu eta tarifen arabera, eta jakinaraziko dio erabiltzaileari terminal horrek zein balio daukan merkatuan.

Balio hori erabiliko da baldin eta, terminala erabat galtzeagatik, zerbitzuaren kostua erabiltzaileari egotzi behar bazaio.

Kontratua onartu aurretik, gama altuko terminalen kasuan, erabiltzaileak edukiko du eskatzea terminala oinarrizko gama batez truke dakiola, terminal horrek onartzen ez dituen zerbitzuak galduta, jakina.

6.art Aparatuen zainketa.

Utzitako telefono mugikorrak zaindu behar dira behar bezain ondo eta, matxurarik badago, informatika-departamenduan entregatu behar da.

Aparaturen batek arazoak ematen baditu erabilera okerra edo zabarraren ondorioz, aparatuen erabiltzaileak izango du aparatuen konponketaren faktura edo, bestela, 5. artikuluan zehaztutako balioa ordaintzeko ardura.

7.art. Lapurreta eta galtzea.

Utzitako aparatua lapurtuz gero, informatikako departamenduari jakinaraziko zaio, 24 orduko epearen barruan, zein tokitan, zein ordutan eta zein zirkunstantzian gertatu den aparatuen lapurreta. Horri erantsiko zaio poliziaren aurrean egindako salaketaren kopia.

Aparatua galtzen bada, erabiltzaileari egotziko zaio 5. artikuluan zehaztutako prezioa.

8.art. Erabilera pertsonala.

Telefonia mugikorreko aparatu bakoitza pertsona bati ematen zaio bere zerbitzua ahalik eta ondoen gauzatu dezan; hori dela-eta, aparatua ezin izango zaie eman edo eskualdatu hirugarrengeoi eta, beraz, aparatua norbaiti utziz gero, ondasun publiko baten erabilera okertzat hartuko da eta, horregatik, ekintza zigortu ahal izango da, bat etorriarik. Funtzionarien zentzapide-erregimena izeneko Funtzio Publikoari uruzko Legeko VIII Kapituluaren xedutakoarekin, baldin eta langilea udaleko langilea bada; eta bat etorriarik Langileen Estatutuan xedatutakoarekin, langilea erregimen laboralekoa bada.

9.art Kontratutako tarifa.

Zerbitzuaren enkargatu arduradunak, une bakoitzean orduko hornitzailearekin adostutako tarifak ikusita, erabakiko ditu, kontsumo datu historikoak eta aurrezteko jarraibideak kontuan hartuta, linea bakoitzari zein tarifa dagokion.

Linea horren kargua emandako langileei jakinarazi behar zaie, bereziki, zein baldintza eta zerbitzu dituen linea horrek.

10.art Dei partikularrak.

Baldin eta laneko edozein arrazoirengatik -lanaldiaren ustekabeko luzapena, gaixotasuna edo horrelako gauzak- telefono mugikor edo ofiziala dei partikularren bat egiteko erabili bada, biharamunean eta, nolana ere, deia egin denetik hilabete bateko epea igaro aurretik, deia arrazoiak justifikatu beharko da, idatziz, horretarako jarritako arduradunaren aurrean.

11.art Egozpena.

Zerbitzuarekin zerikusirik ez duten dei partikularren kostua deioak egin dituen langileari egotziko zaio eta, berriz gertatzen bada, bidezko zehapen-espeditatea abiarazi ahal izango da "izaera ofizialeko bitarteko edo balibideak erabiltzeagatik" (Funtzio Publikoari buruzko Legeko 84 art.) edo kontratuzko fede ona urratu eta konfiantza-abusuagatik. (Langileen estatutiko 54.2d art).

Berdin juzgatuko da telefonia mugikorraren zerbitzuen administrazioaren arduradunak aurreikusi gabeko zerbitzuak erabiltzen badira, nola izan daitezkeen, besteak beste, interneterako loturak, roaming-eko karguak eta SMS premium mezularitza-zerbitzuak.

12.art Indarraldia.

Kode hau indarrean sartuko da, behin Udaleko Gobernu Batzordeak onartu eta dagokien langileei banan banan jakinarazita, beraren edukinaren jakinarazpena egin eta hilabete batera.

Terminal edo linea gehiago ematen badira, berehala aplikatuko da kodea, baldin telefono ematearekin batera beraren erabilerarako baldintzak jakinarazten bazaizkio langileari."

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Informatika departamentuari eta interesatuei.

5.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

Gaia erabaki gabe geratu da.

6.- Sanjoanak 2014. Egitaraua eta aurrekontua.

Kultura departamentuak datozen Sanjoanetako egitaraua eta aurrekontua prestatu ditu.

Hori horrela, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea 2014ko sanjoanetako egitaraua eta aurrekontua (105.414 €).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultur arloari.

7.- Etxez Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 65.024,76 euroko faktura onartzea, maiatzako Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

8.- Tolomendiren ekarpena eta hitzarmena.

Ekarpena.-

Tolomendik, 2014ko apirilaren 15ean, Batzar Orokorra gin zuen. Bertan, aurtengo gestio plana eta aurrekontuak ikusi ziren.

Beraz, Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea 28.388,27 euroko ekarpena egitea Tolomendiri aurtengo gestio plana aurrera eramateko. Dena den, ekarpena baldintzatuta dago aurrekontuaren aurreikuspena egokitu arte.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolomendiri, Kontuhartzaitzari eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuari.

.....

Hitzarmena.-

Tolosako Udalaren eta Tolomendiren artean lan-esparru komun bat dago sortuta 2012ko urtarrilaren 25ean sinatutako Lankidetzeta-Hitzarmenarekin, Tolosako azoka tradizionalen kudeaketa etengabe hobetzeko. Aipatutako Hitzarmenean oinarrituz, azokaren dinamizazioa helburu duen proiektu bat gauzatzeko asmoa azaldu da bi erakundeen aldetik.

Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak honi buruz, jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea aurkeztutako hitzarmena, Idazkariak diligentziatuta jasoko delarik dagokion espedientean.

BIGARRENA.- Onartzea Tolomendiri 10.850 euroko ekarpena egitea, larunbatetako azoken dinamizaziorako. Dena den, ekarpena baldintzatuta egongo litzateke aurrekontuaren Kreditu aldaketa egin arte.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolomendiri, Kontuhartzaitzari eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuari.

9.- Arramele Siglo XXI-ren eskaera. Ondasun Higiezinaren ordainketa zatikatzea. Rondilla 35W-ko garajeak.

2014ko maiatzaren 23an, Arramele Siglo XXI-k 2014 urteko Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren ordainketa 12 epeetan zatikatzea eskatu du (2015eko urtarrilatik abendura), Tolosako Rondilla 35W-en dauden garajeei dagozkiena (Parking Lapurdi). Kopurua 4.501, 55 euro da.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio. Hau da, 12 epeetan zatitu daiteke, baina beti ere urtebete baino gehiago atzeratzen ez bada.

9. artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Egindako eskaerari ezezkoa ematea, hau da, 2012ko urtarriletik abendurarte zatikatze eskaerari

BIGARRENA.- Zatikatzea Arramele Siglo XXI-ri 2014 urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainketa (4.501,55 euro), Tolosako Rondilla 35 W-en dauden garajeei dagokiena, eta berandutze interesak kobratzea; guztia, 2014ko ekainaren 1etik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitetzari eta interesatuei

10.- Arramele Siglo XXI-ren eskaera. Ondasun Higiezinaren ordainketa zatikatzea. San Joan 2-ko garajeak (-1 solairua).

2014ko maiatzaren 23an, Arramele Siglo XXI-k 2014 urteko Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren ordainketa 12 epeetan zatikatzea eskatu du (2015eko urtarriletik abendura), Tolosako San Joan 2n dauden (-1 solairua) garajeei dagokiena (Parking Alondiga). Kopurua 9.145 euro da.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren besteelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 del dio eta banku bermea aurkeztu behar duela. Hau da, 12 epeetan zatitu daiteke, baina beti ere urtebete baino gehiago atzeratzen ez bada.

9. artikuluko 5. atalak dio: *“Atzertzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du”*.

2010eko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikuluko berri bat onartu zuen. Hoen arabera edozein izaeretako zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Egindako eskaerari ezezkoa ematea, hau da, 2012ko urtarriletik abendurarte zatikatze eskaerari.

BIGARRENA.- Zatikatzea Arramele Siglo XXI-ri 2014 urteko Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordainketa (9.145 euro), Tolosako San Joan 2n dauden garajeei dagokienak (-1 solairua). eta berandutze interesak kobratzea; guztia, 2014ko ekainaren 1etik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

11.- Ondasun Higiezin gaineko zerga. Familia ugarien hobaria.

A.R.G.ren eskaera

2014ko maiatzaren 28an, **A.R.G.**-k eskatu zuen familia ugarietara aplikatzen zaien Ondasun Higiezin gaineko zergaren kuotako hobaria 2012 urterako

Ogasunak Uzturre kaleko etxebizitzak katastroan alta orain eman dute eta, ondorioz, orain likidatu zaizkie 2012 urtetik aurrerako Ondasun Higiezin gaineko zergaren likidazioak. Hori dela eta, orain eskatzen du hobaria.

Ordenantza fiskalaren 8. artikuluko 2. atalak esaten du hobari honetaz gozatzeko dubjetu pasiboak eskatu egin behar duela, eta eskaera otsailaren 28^a baino lehen egin behar dela

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak

Con fecha 28 de mayo de 2014, **A.R.G.** solicitó la bonificación en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a las familias numerosas para el año 2012.

Las viviendas de Uzturre kalea han sido dadas de alta en la actualidad, por lo que se les ha notificado las liquidaciones del Impuesto sobre Bienes Inmuebles desde el año 2012. Por ello solicita ahora la bonificación.

El apartado 2 del artículo 8 de la Ordenanza Fiscal señala que el disfrute de esta bonificación requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y que la solicitud deberá realizarse antes del día 28 de febrero.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades

emanako ahalmenez baliatuta,

delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- **A.R.G.**-k eskatutako hobaria ematea zeren Ondasun Higiezin gaineko zergaren likidazioak orain jakinarazi bait zaizkio 2012ko ondorioekin.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

PRIMERO.- Conceder la bonificación solicitada por **A.R.G.** ya que las liquidaciones del impuesto sobre Bienes Inmuebles le ha sido notificado ahora y con efectos del 2012.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a intervención, así como a la interesada.

.....

J.J.A.A.en eskaera

2014ko ekainaren 2an, **J.J.A.A.**ek eskatu zuen familia ugarietara aplikatzen zaien Ondasun Higiezin gaineko zergaren kuotako hobaria.

Ordenantza fiskalaren 8. artikuluko 2. atalak esaten du hobari honetaz gozatzeko dagoen pasiboak eskatu egin behar duela, eta eskaera otsailaren 28^a baino lehen egin behar dela

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

Con fecha 2 de junio de 2014, **J.J.A.A.** solicitó la bonificación en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a las familias numerosas.

El apartado 2 del artículo 8 de la Ordenanza Fiscal señala que el disfrute de esta bonificación requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y que la solicitud deberá realizarse antes del día 28 de febrero.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- **J.J.A.A.**i hobaria ez onartzea, eskaera epea kanpo egin delako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

PRIMERO.- Denegar la bonificación solicitada por **J.J.A.A.** por haberse realizado la solicitud fuera del plazo establecido.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a intervención así como al interesado.

12.- Hondakinen bilketa tasa.

2014ko ekainaren 3an, **M.E.L.L.**ek hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren hobaria eskatu du.

Hondakinen bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6. eranskinren 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakinen bilketa zerbitzuko tasaren %100aren hobaria izango dutela lanidearteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek, edo gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskeintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituenak.

Hobaria jaso nahi dutenek martxoaren 31 baino lehen aurkeztu behar dute eskaera, bizikide unitatearen diru-sarrerak egiaztatzen duen agiriarekin batera.

M.E.L.L.en eskaera epez kanpo egin da.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **M.E.L.L.**-i hobaria ez onartzea eskaera epez kanpo egin delako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

Con fecha 3 de junio de 2014 **M.E.L.L.** ha solicitado la bonificación de la tasa de recogida de residuos.

Las bonificaciones de las tasas de recogida de residuos vienen reguladas en las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades de las Ordenanzas Fiscales. Concretamente, en el artículo 5º del Anexo 2.1.6

En él se dispone que los sujetos pasivos que acrediten unos ingresos inferiores al salario mínimo interprofesional o que cumplan los requisitos para el acceso a alguna de las prestaciones económicas del sistema vasco de garantía de ingresos e inclusión social gozarán de una bonificación del 100% de la tasa por el servicio de recogida de residuos.

Para poder gozar de esta bonificación las personas interesadas deberán solicitar su concesión antes del 31 de marzo junto con la justificación de los ingresos de la unidad convivencial.

La solicitud de **M.E.L.L.** ha sido presentada fuera de plazo

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Denegar la bonificación solicitada por **M.E.L.L.** por haberse realizado la solicitud fuera del plazo establecido.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a intervención así como a la interesada.

13.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en

zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratuta zen

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gainera Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

J.M.A.I., 5142228 U zenbaki finkoa duen ondasunaren jabea, ez dago bertan azaltzen den etxebizitzan erroldatuta.

Hala ere kontuan hartu behar da etxebizitza 2013ko abuztuaren 6an erosi zuela eta 2014ko otsailren 6an erroldatu zirela bertan.

Ordenantzak kasu hau xedatzen du errekarua ez aplikatzeko.

“Errekargu honen helburuen espiritu eta irizpideekin bat datorren kasuetan”.

Azken puntu honetan oinarrituta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **J.M.A.I.**ri %50eko errekarua EZ aplikatzea zergaren kuota likidoaren gainean.

el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de la uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o mas personas.

J.M.A.I., con bien inmueble con número fijo 5142228 U, no está empadronado en dicha vivienda. Por tanto, le correspondería aplicar el recargo.

No obstante, la vivienda se transmite el 6 de agosto del 2013 y los nuevos titulares se empadronan en ella el día 6 de febrero de 2014.

La Ordenanza establece el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo”.

En base a éste supuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- NO aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida a **J.M.A.I.**

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de intervención y al interesado.

14.- Propuesta de resolución del contrato de las obras de la rotonda en la conexión de los ramales del enlace Norte de Tolosa en la N-1.

2013ko azaroaren 29an Tolosako Udalak Construcciones Amenabar enpresarekin kontratu bat sinatu zuen obra batzuk egiteko, hain zuzen ere, errotonda bat eraikitzeke Larramendi kalean, Arriaran gasolindegia inguruan, N-1 errepideko ipar lotunean, 411.588,62 euroko aurrekontuarekin. Obraren proiektua INJELAN, S.L.k egin zuen eta 2013ko irailaren 6an onartu zen.

El 29 de noviembre de 2013, el Ayuntamiento firmó con Construcciones Amenabar el contrato de ejecución de las obras de construcción de rotonda en el enlace Norte de la N-1 en la calle Larramendi junto a la gasolinera de Arriaran por un importe de 411.588,62 €, de conformidad al proyecto redactado por INJELAN, S.L. y aprobado en fecha 6 de septiembre de 2013.

2014ko maiatzaren 19an, obrako zuzendaritzak txosten bat egin zuen, honako hau esateko: errotondako obrak geldirik zeudela.

El 19 de mayo de 2014, la dirección de obras emite un informe en el que concluye que. Las obras de la rotonda están paralizadas.

2014ko maiatzaren 21ean idazki bat bidali zitzaion Construcciones Amenabarri, bost egun balioduneko epea emanez alegazioak jartzeko Obra Zuzendaritzak egindako txostenari. Aipameneko txostenean aditzera ematen zen geldirik zeudela errotondako obrak, Tolosako iparraldean N-1 errepidearekin lotzeko bide-adarren lotunean.

Con fecha 21 de mayo de 2014, se remite escrito a Construcciones Amenabar otorgándole un plazo de cinco días hábiles a fin de que alegaran cuanto estimaran oportuno acerca del informe emitido por la Dirección de Obras. Dicho informe concluía que las obras de la rotonda en la conexión de los ramales del enlace Norte de Tolosa en la NI estaban paralizadas

Obrak geldituta egotea, hala izanez gero, kontratua suntsitzeko kausa izan zitekeen. Beraz, txosten hori kontratari helarazi zitzaion, egokitzat jo zitzaketen alegazioak aurkezteko

Esta supuesta paralización podría suponer causa de resolución contractual, por lo que se trasladó dicho informe a la contrata a fin de que realizara las alegaciones que estimara oportunas

Ekainaren 3an sartu zen Udaletxean Construcciones Amenabarren alegazio-idazkia. Laburki, hauexek dira alegazioak:

Con fecha de 3 de junio ha tenido entrada en el ayuntamiento, el escrito de alegaciones de Construcciones Amenabar. Sucintamente las alegaciones

- Alkatearen eskumen gabezia espedientea tramitatzeko.
- Obrak ez daudela geldituta, eta haiekin jarraitzeko beharrezkoa dela finkatzea prezio kontrajarri bat harrobiko materialarentzat.
- Kontratak erantzukizunik ez daukala obren atzerapenean.
- Kontratuaren suntsiarazpen errudunaren desagokitasuna.
- Construcciones Amenabarren borondatea, kontratuaren xedea betetzeko.

Idatziari amaiera ematen dio, hain zuzen ere, eskatuz prezio kontrajarri bat finkatu behar dela harrobi-unitaterako, betelana egiteko; eta, gainera, erregutzen du eteteko kontratua, ez duelako aurkitzen kontratak mailegu materialik, jarritako baldintzak beteko dituenik obrak egiten jarraitzeko.

2.- Ohar juridikoak.

2.1.- Organo eskudunari buruz.

Egia izan arren organo eskuduna, kontratua suntsiarazteko espedientea ebazteko, kontratazio organoa, kasu honetan, Gobernu Batzarra dela, alkateak bidalitako idazkia tramite hutsezko egintza bat zen helburu honekin: biltzea kontratistaren informazioa, obra-zuzendaritzak egindako txostenaren gainean.

Hura ez zen hartu behar, inolaz ere, suntsipen proposamen baten gisara, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 109. artikulua araber.

Edozein kasutan, suntsipen proposamen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki behar du.

son las siguientes:

- Falta de competencia del Alcalde para la tramitación del expediente.
- Inexistencia de paralización de las obras, siendo necesario para seguir con las mismas fijar un precio contradictorio para el material de cantera.
- Ausencia de responsabilidad de la contrata en el retraso de ejecución de la obra.
- Improcedencia de la resolución culpable del contrato.
- Voluntad de construcciones Amenabar para cumplir con el objeto de contrato.

Finaliza el escrito solicitando la fijación de un precio contradictorio para la unidad de cantera para el terraplenado y, por otrosí, suplica la suspensión del contrato al no encontrar la contrata material de préstamo que cumpla con los requisitos exigidos para poder continuar con la ejecución de las obras.

2.- Consideraciones jurídicas.

2.1.- Sobre el órgano competente.

Si bien es cierto que el órgano competente para resolver el expediente de resolución contractual es el órgano de contratación, en este caso, la Junta de Gobierno, el hecho es que el escrito remitido por el Alcalde era un acto de mero trámite cuyo objetivo era recabar información del contratista respecto del informe emitido por la dirección de obra.

De ninguna forma se debía entender como una propuesta de resolución en aplicación de lo dispuesto en el artículo 109 del Reglamento General de la Ley de Contratos del Sector Público.

En cualquier caso, esta propuesta de resolución debe ser adoptada por la Junta de Gobierno Local.

2.2.- Oinarrizko alegazioak.

Kontratataren oinarrizko alegazioek ez dute justifikatzen, inolaz ere, ez obraren atzerapena, ez hura gelditu izana. Laburbilduz, esaten dute kontratistak ez duela aurkitzen betelanerako materiala, mailegu jatorrikoa, eta, hortaz, betelana harrobiko materialarekin egin beharko litzatekeela; eta, horretarako, prezio kontrajarri bat ezarri beharko litzatekeela, hura ez dagoelako aurreikusita proiektuan.

Horri buruz proiektuaren aurrekontuak partida bat ezartzen du betelana egiteko mailegu jatorriko lurrarekin. Bestalde, material horrek, batetik, baldintza batzuk bete behar ditu (RG-3-CBR>20) eta, bestetik, zabaldu eta trinkotu behar da preskripzio teknikoaren arabera. Inon ere ez du adierazten betelana harrobiko materialaren egin behar denik.

Beraz, Construcciones Amenabar-ek, bere proposamena eta eskaintza aurkeztean, konpromisoa hartu zuen betelana mailegu jatorriko materialarekin egiteko, aurrekontuan ezarritako baldintzekin eta preskripzioa teknikoekin, eskaintzan adierazitako prezioan.

Beraz, alegazioen idazkian esaten dutenean ezin dutela mailegu-materialik lortu, batetik, baieztatzen ari dira obrazuzendaritzak bere txostenean ateratzen duen ondorioa obraren geldiarazteaz, eta, bestetik, ezartzen du beste kausa bat kontratua suntsiarazteko, hain zuzen ere, kontratua ezin duela bete, kontratistari egotz dakiokeen arrazoi batengatik.

Kontratistak ez aurkitzea betelanerako materiala, maileguzkoa, kontratua ez betetzea da eta kausa hori kontratistari egotz dakioke; izan ere, kontratistak

2.2.- Las alegaciones de fondo.

Las alegaciones de fondo de la contratista de ninguna manera justifican, tanto el retraso como la paralización de la obra. En resumidas cuentas, vienen a establecer que la contratista no encuentra material de relleno proveniente de préstamo y que, por lo tanto, dicho relleno se debería de efectuar con material de cantera, para lo cual se debería establecer un precio contradictorio, al no existir el mismo en el proyecto.

Al respecto el presupuesto del proyecto establece una partida para terraplenado con suelo procedente de préstamo que debe tener unas determinadas condiciones (RG-3-CBR>20), y que debe ser tendido y compactado según condiciones de prescripciones técnicas. En ningún momento determina que el terraplenado se debe efectuar con material de cantera.

Por lo tanto en el momento en que Construcciones Amenabar efectúa su propuesta y presenta su oferta, se obliga a efectuar el relleno con material de préstamo de las condiciones establecidas en el presupuesto y en las prescripciones técnicas al precio establecido en su oferta.

De ahí que la afirmación que se hace en el escrito de alegaciones referente a que no puede obtener material de préstamo, por una lado, reafirma la conclusión del informe de la dirección de obra acerca de la paralización de la obra, y, por otro lado, establece una nueva causa de resolución contractual, a saber, la imposibilidad de cumplimiento del contrato por causa imputable al contratista.

El hecho de que el contratista no encuentre material de relleno procedente de préstamo es causa de incumplimiento contractual imputable al contratista ya

konpromisoa hartu zuen betelana maileguzko materialaren egiteko.

Horrenbestez, kontratistaren obligazioa da betelana maileguzko materialarekin egitea, bere proposamenean ezarritako prezioan.

Ez balu aurkituko maileguzko materialik edota ez balu egingo betelana beste materialen batekin (aurrekontuaren eta preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzak beteko lituzkeen materialarekin, jakina), bere proposamen ekonomikoan adierazitako prezioan, ez litzateke ariko betetzen kontratuaren baldintzetan ezarritakoa, eta ez betetze hori kontratua suntsitzeko kausa izango litzateke, kontratistari egotz dakioken arrazoiengatik.

Gainera, harrigarria da aipatzea kontratistaren bosgarren alegazioan enpresaren kaudimena, kapaz ez denean mailegu jatorrizko materiala edukitzeko.

Beste espediente batean jasota dago, berriz, obraren epealdi horretan bertan, Euskal Herria plazako zuzkidura apartamentuen obra kontratuan, beherapen ausartegiko eskaintza justifikatzeko, Construcciones Amenabarren idazki bat. Han justifikatzen dute proposamen ekonomiko bat, beherapen ausartegian erorita egon zitekeena, esanez harrobi bat daukatela eta hark materiala jartzen diela kompetentziako harrobiek baino merkeago. Nola liteke horrelako negozio bolumena duen enpresa batek, Construcciones Amenabarrek ez edukitzea maileguzko materialik? Kontuan izan behar dugu betelanerako behar den kopurua, gutxi gorabehera 1.000,00 m³, ez dela kopuru handia Construcciones Amenabarren obra bolumenarekin konparatuta.

que el mismo se obligó a efectuar el relleno con material de préstamo.

Es obligación, por lo tanto, del contratista efectuar el relleno del terraplén con material proveniente de préstamo al precio establecido en su propuesta.

En el caso de que no encuentre el material proveniente de préstamo o no efectuó el mismo con otro material que cumpla las condiciones del presupuesto y pliegos de prescripciones técnicas al precio establecido en su propuesta económica, se estaría incumpliendo lo establecido en los pliegos que regulan el contrato, y dicho incumplimiento sería causa de resolución contractual por causa imputable al contratista.

Resulta, además, sorprendente que en la alegación quinta la contratista haga mención a la solvencia de la empresa cuando no es capaz de disponer de material de relleno procedente de préstamo.

Constan en otro expediente, en concreto, en el mismo periodo de esta obra (para la justificación de la oferta de baja temeraria para el contrato de obras de apartamentos dotacionales de Euskal Herria Plaza) escrito de Construcciones Amenabar en el que justifica una propuesta económica incurrida en principio en baja temeraria sobre el hecho de contar con cantera propia que les facilita material a precio mas barato que los de la competencia. ¿¿Cómo es posible que una empresa del volumen de negocio de Construcciones Amenabar no cuente con material procedente de préstamo? Tenemos que tener en cuenta que la cantidad necesaria para el relleno, alrededor de 1.000,00 m³, es una cantidad de poca importancia para el volumen de obra que genera Construcciones Amenabar.

Ondorio bezala atera dezakegu, kontuan hartuz, batetik, obra-zuzendaritzaren txostena eta, bestetik, segurtasun eta osasun koordinatzailearen aktak, obra praktikoki geldirik dagoela, alde batera utzita kontrata egiten ari den gestioa, betelanerako maileguzko materiala eskuratzeko.

Kontratatoren alegazioak direnak direla, gertatutakoak eramaten gaitu pentsatzera kontratistak obraren emaitza ekonomikoak koadratu nahi dituela, ahaztuz kontratuen exekuzioaren galdu-gordearen printzi-pioa.

Are gehiago. Kontratatoren jokabidearen erakusle, espedientean jasota dago obra-zuzendaritzak apirilaren 30eko datarekin egindako txostena, non adierazten den ordurako hilabete eta erdiko atzerapenarekin zebiltzala eta apirilaren 7az geroztik betelanarekin hasteko moduan izango zirela.

Beraz, ia bi hilabete pasatu dira betelanak hasi zitezkeenetik, eta kontratak oraindik ez die ekin lan horiei.

Aurrekoaren arabera, hortaz, kontratua eteteko eskaerak ez du inolako oinarririk. Halere, gai honi irtenbidea emateko, hamar eguneko epea emango litzaioke kontratari, maileguzko materiala aurkitu dezan betelana egiteko.

Hori guztia kontuan hartuz, Gobernu Batzarrak, Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Amenabar eraikuntza-enpresari hamar eguneko epea ematea errotondako betelan obrak hasteko edo berrasteko, hartarako proiektuan

Podemos concluir, tanto del informe de la dirección de obra como de las actas del coordinador de seguridad y salud que la obra está en la práctica paralizada, independientemente de las gestiones que efectúe la contrata para encontrar el material de relleno proveniente de préstamo.

A pesar de las alegaciones efectuadas por la contratista, los hechos nos llevan a pensar que la Contratista trata de cuadrar el resultado económico de la obra, olvidándose del principio de riesgo y ventura en la ejecución de los contratos.

A mayor abundamiento, y como reflejo de la actitud de la contratista, en el expediente consta informe de la dirección de obra de fecha 30 de abril en el que se estima que el retraso a dicha fecha de un mes y medio, y que a partir del 7 de abril se podían haber iniciado las obras de relleno.

Por lo tanto han pasado casi dos meses desde que se podían haber iniciado las labores de relleno sin que la contrata haya iniciado estos trabajos.

De conformidad a lo anterior, la solicitud de suspensión del contrato carece de fundamento alguno, si bien en aras de solucionar este asunto se otorgará un plazo de diez días a la contrata a fin de que encuentre el material de relleno proveniente de préstamo.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, a propuesta de la Comisión informativa de Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.-Requerir a Construcciones Amenabar para que en el plazo máximo de diez días comience o reanude las obras del terraplenado de la rotonda con

ezarritako baldintzak beteko dituen materiala erabiliz. Aipameneko epea hasiko da kontatzen ebazpen hau jaso eta hurrengo egunetik.

BIGARRENA.- Amenabar eraikuntza-enpresari honako hau ohartaraztea: betelan obrak ez baditu hasten aipatutako epean, obren geldiarazpen hori kontratua ez betetzea izango dela, kontratistaren beraren erruz. Horrela, kontratua ez betetzea izango litzateke kontratua suntsitzeko kausa; hortaz, hori egiaztatuz gero, kontratua suntsitzeko proposamenari ekingo litzaioke, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 109 artikuluekin bat etorritik. Suntsitze proposamen horren barnean egongo lirateke kontratuaren likidazio proposamena eta ondoriozko berme konfiskazioa.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea abal-emaileari, hamar eguneko epean alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten abal-emaileak eta kontratistak.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari.

material que cumpla las condiciones del proyecto. El plazo establecido se contará a partir del día siguiente al de la recepción de la presente resolución.

SEGUNDO.- Advertir a Construcciones Amenabar que , en el caso de que no comience las obras de terraplenado en el plazo establecido, se considerara que la paralización de las obras es constitutivo de incumplimiento contractual imputable al contratista. Dicho incumplimiento contractual sería causa de resolución del contrato, por lo que, si se verificara el mismo, se procedería, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 109 del Reglamento General de la Ley de Contratos del Sector Publico, a la emisión de la propuesta de resolución contractual que contendría la propuesta de liquidación del contrato con la consiguiente incautación de la garantía.

TERCERO.-Comunicar, asimismo, la presente resolución al avalista para que en el indicado plazo de diez días, tanto la empresa avalista como la contratista puedan formular alegaciones.

CUARTO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo.

15.- 16/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **16/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **56.670,47** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **16/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:

Tolosako Hondakinen bilketa sistema berriarentzat txartel elektronikoaren horniketarako prozesuaren hasiera.

Maiatzaren 27an ospatutako udalbatzan Tolosako hondakinen bilketa sistema berria onartu zuen Udalak.

Beraz, sistema berriari ekiteko behar diren edukiontzi eta jarraipenerako sistemak erosteko espedienteak onartzea proposatu da.

Kontuhartzaitzak txostena egin du honetarako kreditu nahikoa dagoela adieraziz eta Ingurumen teknikariak ere berea egin du espedienteak osatzearren.

Hau dena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Ondorengo kontratazio espedienteak onartzea: **“Tolosako hondakin sistema berriarentzat txartel elektronikoak hornitzekoak”**.

BIGARRENA.- Onartzea baldintza administratibo partikularren agiria, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez hornidura kontratatzeko.

HIRUGARRENA.- Hornidura gauzatzeko dagokion gastua onartzea.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion gonbidapenak eginez.

Tolosako Hondakinen bilketa sistema berriarentzat edukiontzien irekiera sistema horniketarako prozesuaren hasiera.

Maiatzaren 27an ospatutako udalbatzan Tolosako hondakinen bilketa sistema berria onartu zuen Udalak.

Beraz, sistema berriari ekiteko behar diren edukiontzi eta jarraipenerako sistemak erosteko espedienteak onartzea proposatu da.

Kontuhartzaitzak txostena egin du honetarako kreditu nahikoa dagoela adieraziz eta Ingurumen teknikariak ere berea egin du espedienteak osatzearren.

Hau dena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Ondorengo kontratazio espedientea onartzea: “**Tolosako hondakin sistema berriarentzat edukiontzien irekiera sistema hornitzekoa**”.

BIGARRENA.- Onartzea baldintza administratibo partikularren agiria, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez hornidura kontratatzeko.

HIRUGARRENA.- Hornidura gauzatzeko dagokion gastua onartzea.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion gonbidapenak eginez.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA